# KALEAN BAI PLANA ENTITATEETAN INPLEMENTATZEKO ETA INDARTZEKO LANEN KONTRATAZIOA

## *– PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA*

2025/11/20

| | |
|---|---|
| ***ARLO SUSTATZAILEA*** | EUSKARA ERABILERA SUSTATZEKO ETA NORMALIZATZEKO ZERBITZUA |
| ***ESPEDIENTE KODEA*** | 2025ZAUN0035 |

### 1.- KALEAN BAI PLANAREN AURREKARIAK

Kalean Bai Planaren helburu nagusia da Irungo haur eta gazteen aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten taldeetan euskararen presentzia eta erabilera handitzea etorkizunean euskara hutsean aritu ahal izateko, bai elkartearen funtzionamenduan bai eta antolatzen dituzten jardueretan ere.

Helburu hori lortzeko euskararen erabilera sustatu nahi da hainbat eremutan: ikastetxeek, elkarteek, klubek eta abarrek antolatzen dituzten curriculum-eremutik kanpoko aisialdi jardueretan, entitateen barne-funtzionamenduan, herriari begira antolatzen diren jardueretan eta aipatutako talde eta entitateek erakunde publikoekin dituzten harremanetan.

Elkarte edo erakunde bakoitzak, hitzarmenen bidez zehazten du euskarari zein mailatako lehentasuna emateko erabakia edo konpromisoa hartzen duen. Irungo Udalak 2002an Planari heldu zionetik 113 elkarte edota entitateekin lanean aritu da eta azken urteetan 64 elkartek sinatu dute euskararen erabilera sustatzeko eta sendotzeko hitzarmena. Azken hauekin konpromisoak berraztertzen, lantzen eta berresten aritu da Udala eta orain arte egindako lan horri jarraipena eman nahi dio.

Horretaz gain, elkarte edo entitate gehiagotan eragin nahi da sortu berriak direlako edo berriak izan gabe orain arte Kalean Bai Planera batzeko urratsa eman ez dutelako.

Kontratazioa honen bitartez entitate bakoitzak hitzarmen bidez euskarari zein mailatako lehentasuna emateko konpromisoa duen edota hartzeko prest dagoen jorratuko da. Gainera Irungo udala eta Irungo entitateen arteko elkarlana indartu nahi da.

Lan horrek guztiak Kalean Bai programan dauden entitateen sarea zabaltzea eta sendotzea ekarriko du.

### 2.- KALEAN BAI PLANA

#### 2.1.- Kalean bai planaren helburu orokorrak:

Kalean Bai plangintzaren helburu nagusia, Irungo haur eta gazteen eskolorduz kanpoko jarduerak euskalduntzea da.



Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 9ZP0-6GZZ-OJZT-4CEU
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Miren Josebe ARAÑA MICHELENA TÉCNICA DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA (23/01/2026 14:45 CET)

Euskararen erabileraren suspertze hau barne funtzionamenduan, herriari begira antolatzen dituzten jardueretan, beraien arteko harremanetan eta erakunde publikoekin dituzten idatzizko zein ahozko harremanetan gauzatu nahi dugu.

**- Helburu espezifikoak:**

Hona hemen zehatz-mehatz zein diren helburu espezifikoak:

- Barne funtzionamenduan:
  - Zuzendaritza Batzordeetako euskaldun kopurua gehitzea, elkarteko batzarrak euskaraz ere garatu ahal izateko.
  - Haur eta gazteekin diharduten begirale, entrenatzaile etabarrek euskaraz funtzionatzea.
  - Errotulu, iragarki, barne-imprimaki, ohar, akta, bazkideentzako gutun eta paper guztietan euskarari lehentasuna ematea.
- Kanpo jarduerak:
  - Herriari begira antolaturiko ekintzetan euskararen lehentasunezko erabilpena eta presentzia segurtatzea: monitoreak, aurkezpenak, propaganda, oharrak, gutunak, iragarkiak ...
  - Ikuskizunak antolatzerakoan ere irizpide berarekin jokatzea: partiduak, txapelketak, jaialdiak, emankizunak, festak etabar.
- Beraien arteko harremanetan:
  - Ahoz dituzten harremanetan euskarari lehentasuna ematea: batzarrak, telefono deiak...
  - Idatziz dituzten harremanetan euskarari lehentasuna ematea: gutunak, txostenak...
- Erakunde publikoekiko harremanetan:
  - Ahoz dauzkaten harremanetan euskarari lehentasuna ematea.
  - Idatzizko harremanetan euskarari lehentasuna ematea.

Elkarte edo erakunde bakoitzak, hitzarmenen bidez zehaztuko du zein mailatako lehentasuna emateko erabakia, konpromisoa hitzartzen duen. Elkarte bakoitzak erabakiko du zer nolako konpromisoa hartzeko gogoa eta aukera duen, inork ez dio inori zer egin behar duen esango.

Hauek horrela, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa 2010ean argitaratutako *Entitateek euskalduntzeko metodologiaren garapena (Elkarteetan eragiten hitzarmengintzaren bidez - ISBN 978-84-613-8837-0* - liburuan zehaztutakoaren arabera jardungo du enpresa esleipendunak.

**3.- KONTRATUAREN XEDEA.**

Irungo aisialdi jarduera eta taldeetan euskararen presentzia handitzeko eta bereziki haur eta gazteentzako jarduerak euskara hutsean egitea lortzeko enpresa bat kontratatu behar dugu. Enpresa horrek KALEAN BAI PLANA inplementatu, dinamizatu eta jarraipena egin beharko du.

**4.- ENPRESAK EGIN BEHARREKO LANAK:**

4.1 **Egungo egoeraren diagnostikoa egingo du** lehenik enpresa esleipendunak hitzarmena sinatua dutenekin eta hitzarmena sinatua ez dutenekin. Hau egiteko, *0-16 urte bitarteko Eskola-orduz kanpoko jardueren hizkuntza egoera diagnostikatzeko tresna* (https://www.euskadi.eus/eskola-orduz-kanpoko-jardueren-hizkuntza-egoera-diagnostikatzeko-tresna/web01-a2aiseus/eu/) tresna erabili ahalko du edo tresna berri bat sortu honetan oinarrituz.

Hitzarmena betetzen dutenekin, lanean jarraituko du konpromiso berriak hartzeko. Hitzarmena betetzen ez dutenekin, berriz, lanketa bat egingo du jakiteko zeintzuk diren ez betetzearen arrazoiak. Horiek jakinda enpresa esleipendunak neurri zuzentzaileak proposatuko ditu eta entitatearekin landuko ditu erabakitzeko egingarriak diren ala ez.

Horretarako, Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuak zehaztutako lehentasunen arabera honela jokatuko du:

**4.1 A)** 1. lehentasun-mailako entitate bakoitzari euskara sustatzeko diseinatutako mikroplana aurkeztuko dio eta entitateekin kontrastatu eta adostuko du.

19 entitate hauek:

- Real Unión Club taldearekin egindako lanaz gain, beste 18 elkarteren mikroplanak diseinatu dira:
- Alaitsu Guraso Elkartea
- Auntxa Trikitixa Eskola
- Bidasoa Atletiko Taldea
- Bidasoa Judo Elkartea
- Bidasoa XXI Igeri Elkartea
- Dunboako Auzo Elkartea
- Elitxu-Lapize Auzo Elkartea
- Eraiki Dantza Taldea
- Euskal Jira
- Txingudi Errugbi Taldea
- Jaizubia Hipika Elkartea
- Kemen Dantza Taldea
- Leka Enea Mahai-Tenisa
- My Dance Studio

- Nicolas Guerendiain Elkartea
- Ondare Kultur Elkartea
- Taupada GKE
- Txorimaloak Soinu Taldea

Kontratazioaren lehen urtean enpresa esleipendunak entitate hauekin bildu eta adostutako Mikroplanak betetzen lagunduko die.

4.1 B) 2. lehentasun-mailako entitateek dituzten hitzarmen zaharra berrikusi, mikroplanak egin eta haiekin kontrastatu eta adostuko ditu.

18 entitate hauekin arituko da lanean enpresa esleipenduna:

- Alde Zaharreko Auzo Elkartea (Parte vieja-plaza San Juan)
- Ametsa Abesbatza Kultur Elkartea
- Bidasoa KE (eskubaloia)
- Erroibide Saskibaloia
- Euskadiko Itsasargien Lagunak
- Gaztedi Berria Aisi Taldea
- Ibarla-Meaka Dantza Taldea
- Irungo Txirrindulari Elkartea
- Kurpil Kirolak
- Mariño Kirol Kluba
- Pauso-K Akademia
- Real Unión Club
- Santiagotarrak Kirol Elkartea
- Skola Musik
- San Marcial Kirol Elkartea
- Lur-Alai Squash Kluba
- Marte Laborategia
- Txingudi Eskubaloia

Lehenago hasi badaitezke ere, kontratazioaren bigarren urtean hauekin arituko da enpresa esleipenduna, bai mikroplanak diseinatzen eta adosten, bai eta inplementazioari hasiera ematen.

4.1 C) 3. lehentasun-mailako entitateen kasuan, 10 entitate:

- Alaikiro IGE (Toki Alai HH/LH)

- Elatzeta IGE

- Gaurko Andreak Berdintasunaren Aldeko Elkartea

- Gazte-Landetxa Elkartea

- Landetxa Auzo Elkartea

- Ramuntxo Trinkete Kluba

- San Marcial Eskaut Taldea

- Santiago-Bañera Auzo Elkartea

- Txingudi Ikastola IGE

- Padel Indoor Bidasoa

Lehentasunezko taldeekin lanean aritzeaz gain harremanetan jarriko da sinatutako hitzarmenak berraztertzeko, ahal den neurrian egokitzeko eta konpromiso berriak hartzeko. Hau da, hitzarmen zaharra daukatenak berrikusi, ez dutenei egiteko proposatu eta lanean hasiko da haiekin.

4.1 D) 4. lehentasun-mailako entitateak izango dira datozen lau urteetan sortu litezkeen talde, elkarte, entitateak, bereziki gazteekin jardungo dutenak. Hauei Kalean Bai Planaren berri eman eta aurkezpena egingo zaie. Gehienez, kontratazio-urteko 4 elkarterekin lanean aritzea aurreikusi da.

4.2 **Enpresak komunikazio kanpaina bat egingo du** gutxienez helburu hauek lortzeko:

- Alde batetik, Planaren barruan dauden Irungo aisialdiko eta kiroletako elkarte eta entitateei zuzendua, hala nola, oraindik barruan ez dauden kide berriak lortzeko.

- Bestetik, Kalean Bai Plana gizarteratzeko lanak egingo ditu, hala nola beharrezkoak izan daitezkeen beste komunikazio batzuk, komunikazio kanpaina hau Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuak zehaztutakoaren arabera egingo da.

Komunikazio plana egiteko enpresa esleipendunak euskarriak landuko ditu. Indar berezia emango zaie sare sozialei, horretarako sare sozial propioak sortuz.

Komunikazio Plana lehen kontratu-urtean egingo du bai eta hortik eratorriko kanpaina. Hartara, Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuarekin zehaztuko dira Plana eta kanpainaren ezaugarriak, kontratua sinatu eta hilabetera. Entitateekin komunikazio estrategiak garatuko ditu haurrek eta gazteek euskaraz sozializatu dezaten.

4.3 **Prestakuntza eta sentsibilizazio saioak antolatuko ditu** eskolaz kanpoko jarduerak gidatzen dituzten hezitzaileak euskararen erabiltzaile aktibo izatetik euskararen erabileraren eragile izatera pasatzeko. Urtean bat prestatuko du.

4.4 **Beste erakundeetatik abiatutako euskara sustatzeko ekimenetan** parte hartzeko lanketa egingo du (KORRIKA, EUSKARALDIA…).

4.5 **Esleipendunak entitateei laguntza teknikoa eskainiko die** kontratuak dirauen bitartean:

- Kalean Baiko zerbitzu-eskaintza (aholkularitza, itzulpen zerbitzua, dirulaguntzak, esatari euskaldunen lan poltsa, interpretazio sistema)

- Sentsibilizazioa eta formakuntza saioak, materiala (hiztegiak…).

4.6 **Hitzarmenen sinadura ekitaldiak antolatuko ditu**, kontratu urteko bana.

**4.7 Irungo kirol talde nagusien** (Real Union eta Bidasoa Eskubaloi taldea) idatzizko eta ahozko, barruko nahiz kanpoko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia bermatzeko neurriak jorratuko ditu bai eta Irunen antolatzen diren kirol proba nagusietan ere.

Horretarako, enpresa esleipenduna udal Kirol Sailarekin harremanetan jarriko da kirol proba nagusien zerrenda ezagutzeko eta horietako 10 nagusienekin lanketa egingo du kontratazioan zehar.

4.8 **Haur eta gazteei zuzendutako kirol jardueren hizkuntza-egoeraren jarraipena egin** eta neurri zuzentzaileak proposatuko ditu, bereziki kirol eskola duten kirol elkarte hauetan 2025ean egindako diagnostikotik. Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko zerbitzuak emango dio diagnostikoaren berri enpresa esleipendunari.

- A.D Irunesa Gimnasia Ritmica

- Badia TP Kirol Kluba

- Bidasoa Atletiko Taldea

- Bidasoa Fiantxeto 2019 Xake Kluba

- CD. San Marcial Irun

- CD Bidasoa

- Club Ciclista Irunes

- Club Deportivo Natación Hondar- Irún Bidasoa XXI

. Club Hipico Jaizubia,

- Leka Enea Mahai-Tenisa

- Lur-Alai Squash Kluba

- Real Union Club SAD

- Santiagotarrak KE

- Txingudi Rugby Club

- Urgara Txingudi

Ardatz hauek landuko dira:

- Egiten duten lana aitortzeko sistemak eraikitzea
- Elkarte hauei begirako sentsibilizazioa eta formakuntza eskaintzea
- Herritarrei begirako sentsibilizazio-kanpainak aurrera eramatea kirola euskaraz egiteak dituen onurak zabaltzeko
- Baliabideak ematea (dirulaguntzen berri, itzulpen zerbitzua, kirol monitore lan-poltsak…)

4.9 **Euskararen erabileran gazteen erreferenteak bilatu/identifikatuko** ditu kirolaren eremuan eta DBHko institutuetan saioak antolatuko ditu, kontratu urteko bana.

4.10 Irunen udan, neguan eta Aste Santua egiten diren kirol Campusetan euskararen erabilera bermatze aldera, **lanketa berezia** egingo du antolatzaileekin, kontratu urteko bost campusetan lan egingo du.

Lehenengo kontratu urtean hauekin arituko da:

- Real Unión

- C.D. Behobia

- C.D. Mariño

- C.D. San Marcial

- Landetxa K.T

4.11 **San Pedro eta San Martzial jaietan berariazko lanketa egingo du kirol edota aisialdiko eta kiroletako elkarte** eta entitateekin euskararen erabilera bermatzeko elkarte hauekin, beti ere haur eta gazteentzat ekitaldirik antolatzen badute:

- Ametsa Abesbatza
- Aurreratu Elkartea
- Badia TP Kirol Kluba
- Betti Gotti Euskara Kultur Elkartea
- Bidasoa Xake Kluba,
- Bidasoako Erraldoiak
- Club Argitrans, Erroibide KE
- Club Ciclista Irunés
- Eraiki Dantza Taldea
- Irungo Euskal Kirolak
- Irungo Mendizaleak
- Irungo Motor Elkartea
- Irungo Txistulari Taldea
- Kemen Dantza Taldea
- Lur-Alai Squash Kluba
- Meakako Adixkideak
- Náyade Abesbatza
- Ondare Kultur Elkartea
- Padel PIB Bidasoa
- Ramuntxo Trinkete Club
- Real Unión
- Santiagotarrak KE
- Santiagoko Deabruak
- Skola Musik
- Super Amara Bidasoa Atlético Taldea

- Txorimaloak Soinu Taldea

Kirol eta Kultur Sailarekin harremanetan jarriko da esku-hartzearen nondik-norakoak zehazteko.

4.12 **Esleipendunak plana aurrera eramateko, entitateekin posta elektronikoz eta telefonoz etengabeko harremana izango du** eta behar izanez gero, aurrez aurreko bilerak egin beharko ditu. Izan ere, KALEAN BAI Plana aurrera eramatean aldagai ez-egonkor asko izaten dira, adibidez, entitateetako Zuzendaritza Batzordearen aldaketak, euskara arduradunarena eta abar, eta horiek aintzat hartu behar dira ezinbestean.

4.13 Horretaz gain, honelako Plan batek berezkoak dituen **lanak egiteaz arduratuko da esleipenduna**, eta, gutxienez, honako hauetaz:

– Lanak planifikatzea, kudeatzea eta ebaluatzea, udal teknikariarekin koordinatuta.

4.14 **Enpresa esleipendunak telefono bat eta helbide elektroniko bat** jarriko ditu elkarteetako arduradunen eskura nahi dituzten galderak edota zalantzak argitzeko.

## 5.- EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Enpresa esleipendunak egitasmoaren ebaluazioa honela egingo du: lan hauetarako enpresak haren izenean jarduteko gaitasun osoa duen pertsona bat izendatuko du, Irungo Udalaren aurrean ordezka dezan eta zerbitzuaren martxan eragina duen edozein gertakari anormal, gogaikarri edo zail Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuari jakinarazteko.

### 5.1 Jarraipena

Enpresa esleipendunak urtean gutxienez 2 koordinazio-bilera egingo ditu udalarekin Euskara Erabilera Sustatzeko eta Normalizatzeko Zerbitzuko bulegoetan. Horietan planaren inplementazioaren berri emango dio udalari enpresa esleipendunak izendatutako arduradunak, eta behar izanez gero, neurri zuzentzaileak edo egin beharreko egokitzapenak zehaztuko dira. Dena dela, beharra sortuko balitz, ez ohiko bilerak egin ahal izango dira.

Horrezaz gain, hilabetean behin egindako lanen laburpen bat aurkeztuko du.

Kontratu-urte bakoitzaren bukaeran, memoria bat aurkeztuko dio Udalari urtean zehar egindako lanekin eta lortutako emaitzekin.

### 5.2.- Ebaluazioa

**Kontratua bukatutakoan** egindako lanen inguruko Memoria zehatza aurkeztuko du enpresa esleipendunak. Bertan, lortutako emaitzak emateaz gain, ondorioak aurkeztuko ditu eta horien araberako neurri zuzentzaileak, proposamenak, helburu, ekintza edo baliagarri izan daitekeen edozein proposamen aurkeztuko du.

## 6.- KRONOGRAMA

Enpresa esleipendunak honako kronograma hau bete behar du:

| **Egitekoa** | **1 urtea** | **2 urtea** | **3 urtea** | **4 urtea** |
|---|---|---|---|---|
| Komunikazio Plana (kontratua sinatu berritan, Zerbitzuarekin adostu) | X | | | |
| Komunikazio kanpaina (hitzarmen eta konpromisoa betetzen diren neurria 1. eta 2. Urtean) | X | X | X | X |
| Mikroplanak inplementatu 1. Mailako lehentasunezkoetan | X | | | |
| 2. Mailako lehentasunezkoekin Mikroplanak adostu eta inplementatzen hasi | | X | | |
| 3. Mailako lehentasunezkoekin hitzarmenak berraztertu, egokitu eta mikroplan berriak adostu | | X | X | X |
| 4. Mailako lehentasunezkoekin hitzarmenak berraztertu, egokitu eta mikroplan berriak adostu | | | X | X |
| Prestakuntza eta sentsibilizazio | X | X | X | X |
| Beste erakundeetatik abiatutako euskara sustatzeko ekimenetan | X | X | X | X |
| Laguntza teknikoa | X | X | X | X |
| Hitzarmen sinadura ekitaldiak (Hitzartzen diren neurrian) | X | X | X | X |
| Irungo talde nagusiak | X | X | X | X |
| Kirol elkarteetako kirola eskolak: (egiten duten lana aitortzeko sistemak eraikitzea, elkarte hauei begirako sentsibilizazioa eta formakuntza eskaintzea, herritarrei begirako sentsibilizazio-kanpainak aurrera eramatea kirola euskaraz egiteak dituen onurak zabaltzeko, baliabideak ematea (dirulaguntzen berri, itzulpen zerbitzua, kirol monitore lan-poltsak…) | X | X | X | X |
| Euskararen erabileran gazteen erreferenteak | X | X | X | X |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Irunen egiten diren kirol Campusetan (uda, gabonetan) | X | X | X | X |
| San Pedro eta San Martzial jaietan | X | X | X | X |

## 7.- BALIABIDEAK LANAK EGITEKO

### 7.1.- Enpresaren giza baliabideak

Enpresa esleipendunak Kalean Bai Plana entitateetan garatzeko ondoko baliabideak jarriko ditu: kontratuaren arduraduna eta dinamizatzaile bat (gutxienez). Pertsona berak egin ahalko ditu bi funtzioak.

Erabiltzaileekin harreman zuzena izango duen kontratuari atxikitutako dinamizatzaileak honako hauek bete beharko ditu:

a) Euskara: Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 mailaren pareko euskara maila duela egiaztatu beharko du zerbitzu egiteko izendatzen den langileak.

b) Titulazioa: gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

Eginkizunak:

a) Kontratuaren arduradunaren eginkizunak:

- Irungo Udalarekiko interlokutorea.
- Dinamizatzailea bat/bi egunez jarraian lanera agertzen ez bada, hura ordezkatzea, egoki deritzen bideetatik, plegu honek finkatzen dituen baldintzetan betiere.

b) Dinamizatzailearen eginkizunak:

- 4. eta 5. ataletan zehaztutakoak bideratuko ditu.
- Memoriak, txostenak eta lan egiteko beharrezko dokumentuak prestatuko ditu.

## 8.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDURAKO HITZARMENA

2016/679/EB Erregelamendua, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa beteko du empresa esleipendunak. Horregatik, datuen tratamendurako hitzarmen bat sinatu beharko du Irungo Udalarekin, ezen, kontratua egoki gauzatzeko, enpresa esleipenduna arduratuko baita Irungo Udalaren ardurapekoak diren datu jakin batzuk tratatzeaz.

## 9.- ESLEIPENDUNAK GENERO IKUSPEGIARI DAGOKIONEAN DITUEN BETEBEHARRAK

Esleipendunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatuko ditu. Irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

- Hizkuntzen erabilera ez-sexista egitea, ahozko nahiz idatzizko mezuetan
- Emakume eta gizonen presentzia orekatu eta ez-estereotipatua bermatzea, erabiliko diren irudietan.
- Hizkuntza ez-sexista erabiltzea dokumentuetan, publizitatean, irudietan eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialean; emakumeen diskriminazioa areagotzen duen irudirik ez erabiltzea eta berdintasuna, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta kideko balioak sustatzea; eta generoaren araberako ikuspegia kontuan hartzea kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenetan, idazkietan, datuetan, estatistiketan…

## 10.- INGURUMENAREN ALORREAN ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Dokumentuak inprimatzea beharrezkoa dela ikusten denean, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ahal den neurrian formularioen kopurua murriztuko da, ahal den gehien beharretara egokituz (bilerara joango direnen kopurua...) eta kopiak soberan egotea saihestuz.
- Dokumentuak bi aldeetatik inprimatuko dira, zuri-beltzean (kolorea erabiliko da, soilik, zuri-beltzean ulertu ezin denean), 2 orri alde bakoitzean (ulergarritasuna bermatzen bada), koadernatze minimoarekin eta plastikozko taparik gabe (birziklatzea errazteko).
- Paperak honako baldintza hauek bete beharko ditu:
  - ✓ %100 birziklatua (kontsumo ondorengo zuntzen edukia %65).
  - ✓ Birziklatu gabeko papera soilik erabiliko da Din A4 edo Din A3 formatuan inprimatu ezin diren planoetarako, edo beste mota bateko papera behar duten erabilera haietarako, merkatuan paper birziklatu kalitatezkorik ez badago.
  - ✓ Kasu hauetan erabilitako paperek %30eko eguneko zuntzak eta/edo basoustiategi iraunkor zertifikatuetatik eratorritako birziklatuak eduki beharko dituzte (FSC, PEFC edo baliokidea).
  - ✓ Klororik ez edukitzea (TCF).
  - ✓ ISO 11475:2004 arauaren arabera, zuritasun maila %80koa edo handiagoa edukitzea.

Kontratuaren hasieran, erabiliko dituen birziklatutako edo birziklatu gabeko paperen dokumentazioa (izena, marka eta ingurumen ezaugarriak) aurkeztu beharko du esleipendunak, kontratatzaileak baimena eman dezan. Kontratuaren iraupenean aldaketarik egingo balitz, kontratatzaileari jakinarazi beharko zaio eta haren onespena eskatu.